

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure enpresaren eta bezeroen arteko harremana autozerbitzuzkoa izan behar da; hau da, enpresako kideak eta bezeroak ez gara aurrez aurre egongo, gure proiektua web-aplikazio bat delako. Honenbestez, nahikoa izango da erabiltzaileek aplikazioa instalatzea.

Motibazioei loturik, gure hasierako motibazioa bezero edo kontsumitzaile berriak lortzea izango litzateke, eta horretarako hasiera batean agian gure bezeroekin aurrez aurreko kontaktua izatera behartuak ikusiko gara. Besteak beste, hainbat supermerkatu edota kalean zerbitzua eskainiz, edota iragarki ezberdinak eginez (Hau noski ez da aurrez aurrekoa izango)

